



Noizko BPGren % 6?

¡Sin más inversión no hay tregua en educación!



03

EDITORIALA

04

0-3

Iruñeko Udal Haur Eskoletan
bidelagunak
SOS Haur Eskolak

05

INTERINOAK

Sueldos manguantes sin soberanía
energética y alimentaria

06

KONGRESUA

XII. Kongresua. Noranzko bakarra,
publikoa

07

ESKOLA ALTERNATIBOAK

Hezkuntza sistema sendoaren alde

08

HEZKUNTZA FINANTZIEROA

Finanzas éticas en las escuelas

09

EAE

Lan-karga kudeaketa txarraren
ondorio denean

10

LAN OSASUNA

Estrés laboral, la pandemia
que no sale en los medios II

11

IDAZKARITZA FEMINISTA

Pobreziak emakume aurpegia du

12

LGBTBIQ+

LGBTBIQ+: lesbiana, gay, bi, trans,
queer eta gehiago... eta I? INTERSEX

13

EILASTASUNA

Asanblada Nazionala

14

MUGIMENDU SOZIALAK

Grupo macrogranjas
Goi tentsioko lineak
eta energia kolonialismoa

15

HITZ ETA LAPITZ

16

HAN-HEMENKA

Ni casadas ni sepultadas. Las viudas:
una historia de resistencia femenina
Un secreto pelirrojo



Noizko BPGren % 6?

¡Sin más inversión no hay tregua en educación!


Hezkuntza publikoak oinarri indartsua eduki dezan, garrantzitsua da langileak eta lanpostuak egonkortzea; ikastetxeek behin betiko langile kopuru duin bat behar dute egoki aritzeko epe laburrean, ertainean eta luzean.

Nafarroa Garaiko Hezkuntza Publikoaren interinitate tasa % 54ra iritsi da; Kontuen Ganberak berriki adierazi duen bezala, 2018tik 7 puntu egin du gora. Sistema honek nabarmen huts egiten du langileak kontsolidatzeko, azken urteotan irakasle gehiago jubilatzen baitira funtzionario bilakatzen direnak baino. Hori ez da kasualitatez gertatu, bitarteko langile kopuru handiekin errazten baitira pribatizazioak eta kaleratzeak. 2010etik aurrera oposizioak asko murriztu ziren. 2011n ingeleseko espezialisten deialdia egin zen, espezialista horiek PAIko tutore gisa erabiltzeko helburuarekin. 2014ko epai batek iruzur hori debekatu zuen eta, geroztik, Hezkuntza Departamentua saiatu da Estatu espainiarreko legedia aldatzen ingeleseko betekizuna oposizioetan eskatzeko. Hori lortzen ez duen bitartean, oposizioak oso lanpostu gutxirekin atera dira eta aterako dira.

Hezkuntza Ministerioa oposizioen araudia moldatzen ari da, Funtzio Publikoan sartzeko bidea aldatzera doa eta egonkortze gisa etorriko da. **STEILAS**en egun dugun oposizio sistemarekin oso kritikoa izan gara beti, eta merezimenduen bidez planteatzen den lehiaketa hau berri ona izan liteke; baina letra txikia dakar. Batetik, aldi baterako planteatzen da, gehienez ere 3 urtetan zehar deituko dira merezimenduen balizko lehiaketak. Bestalde, Hezkuntza Departamentuak zailtasun handiak ditu lanpostu kopuru itxuroso bat ateratzeko PAI programa errotuta dagoen bitartean, finkagarriak diren lanpostuetako anitzek ingeleseko eskakizuna baitute gaur egun.

Panorama kezkarria da, interinitatea gora doa etengabe eta horrek denon lan baldintzak okertzen ditu, kolektiboaren eta hezkuntza sistemaren funtzionamendua kolokan jarritzeko etor litekeen murrizketa garaian. Honi bi gauza gehitu behar zaizkio: alde batetik, egun dugun zerrenden kudeaketa toxikoaren ondorioz aldi baterako kontratua duten langile guztiek nahitaez aurkeztu behar dute azterketetara lan egin nahi badute, horrek suposatzen duen lan zamaekin, estresarekin eta presioarekin. Bestalde, pandemiak ekarri dizkigunak eta horiek aritzeko neurri eskasek eskoletan anabasa sortu dute, muturreraino estutu dute langileria deus ez egitearen politikaren bitartez.

Borondatea eta inbertsioa dira egoeraren norabidea aldatzeko tresna egokiak. Nafarrako Gobernuak hitzartu zuen BPGaren % 5 inbertitzea Hezkuntza Publikoan eta hori lortzeko lanabes on bat garatu zuen 2018an, Hezkuntza Publikoaren Kalitatea Hobetzeko Ituna. Bestalde, datozen urteotan behin-behineko langileak finkatzea helburu duen sistema iragankorra dugu, eta hor egin beharko du benetako apustua Gimenezaren Departamentuak, Nafarroa Garaian hezkuntza sistema osasuntsu baterako norabidea hartu nahi badu. ■



Iruñeko Udal Haur Eskoletan bidelagunak



Nafarroan **STEILAS** Sindikatuak, 0-3 adin tarteari dagokion hezkuntza zikloaren duintasunaren alde lan egiten dugu egunero. Haurtzaroaren eskubideen defentsan lan egiten duten profesionalak baldintza duinetan aritzea oinarritzkoa da zikloaren osasunerako.

Argi dugu haur eskoletan ibilbide profesionala duten lankideak giza ondarea direla; haurtzaroaren kulturaren ondarea eta, noski, hezkuntza ondarea.

Horretarako abiapuntua, heldua eta haurren arteko harreman egoki eta hurbilak dira, harreman honek ekarriko baitu haurren garapenean ziurtasun fisikoa eta psikologikoa. Hezkuntza integrala eta indibidualizatua helburua dela ezin dugu ahaztu.

Helburua lortzeko bidean ezinbestekoa da haurren beharrei errepertzea eta hori izatea gure lan baldintzak borrokatzeko ardatza, hala nola:

- Haurren mugimendu askea.
- Kalitate goreneko zaintza uneak.
- Bizipen eta erritmo propioetan akonpainamendua.
- Sozializazio baketsurako aukera.

Egun ditugun lan baldintzek, ratio altuek besteak beste, jarraipen indibiduala egiteko eragozpenak ekarri dizkigute eta ondorioz hezitzaileek antsietatea eta frustrazio profesionala sentitzen dute.

STEILAS sindikatuak betidanik ziklo honek kudeaketa publiko bateratua izatea eskatu du, Hezkuntza Departamentuaren menpekoa:

- Hezkuntza izaera legez babesteko aitortza politikoak, hezkuntza aitortza eta aitortza administratiboa ekarriko luke.
- Eskaintza eskaera tranpatik at, 3-6an bezala behar diren eus-kara plaza guztiak bermatuko lirarteke.
- Lan baldintza duinak.

Hemendik gutxira Iruñeko Udal Haur eskoletan hauteskondeak izango dira, horretarako **STEILAS**en izaerarekin bat egiten duten pertsonak behar ditugu zerrenda osatzeko. Gure borroka aldarriekin bat egiten duten pertsona inplikatuak behar ditugu eskola hauen egoera hobetzeko. ■

Dentro de poco habrá elecciones en las Escuelas Infantiles Municipales de Pamplona, para ello necesitamos personas cercanas e implicadas que se sumen a nuestras proclamas de lucha para mejorar la situación de estas escuelas, que compartan nuestra manera de ser y se quieran presentar en la lista de **STEILAS**.



SOS Haur Eskolak

STEILAS sindikatua Nafarroako 0-3 Plataformaren parte aktiboa da berau sortu zenetik, eta hemendik maiatzara mobilizazio egutegi bat antolatuta da.

Otsailaren 12an egindako kontzentrazioarekin hasiera eman genion maiatzera bitarte izango den mobilizazio egutegiari.



Nafarroako Gobernuari, haur eskola guztien kudeaketa Hezkuntza Departamentuak gain hartzeko prozesuan ondokoa eskatzen diogu:

Haur-eskoletako langile kopurua bikoiztea ratioak jaisteko neurri gisa, plazen eskaintzari eutsiz (horrela, Europako Batzordearen Haurren Arretarako Sareak gomendatutako ratioetara hurbilduko lirarteke).

Hezkuntza Departamentuak ezartzen dituen finantzaketa-moduluen igoera (langileen antzinatasuna, ordezkapenak, KPlaren igoerak eta udalen gastu erreala kontuan hartzea).

2 urteko gelak ezartzeko proposamena bertan behera uztea.

Gaur egungo egoera ikusita, Nafarroako 0-3 Plataformak ez du bazter-tzen greba mugagabea deitzea. ■

HAUR-ESKOLEN DUINTASUNAREN ALDE!



Sueldos menguantes sin soberanía energética y alimentaria


En la Ley de Presupuestos Generales del Estado para 2022, presentada por el autodenominado gobierno más progresista de la historia de España, se prevé una subida salarial del 2% para las y los empleados públicos. Esta subida ha sido superada por una inflación a final de año del 6%. Esto supone una pérdida de poder adquisitivo del 4%.

A esta pérdida hay que añadirle todo lo sustraído desde el año 2010, alrededor de un 17% en la educación pública altonavarra, que no ha sido compensado con los míseros aumentos de sueldo de los últimos años. Esta situación chirría más cuando el presupuesto del Ministerio de Defensa se ampliará un 7,8% y el sueldo de las fuerzas de seguridad del estado ha crecido un 21,5% de 2018 a 2021. Además, la Ley de Presupuestos prohíbe a las comunidades autónomas negociar con los sindicatos subidas de los complementos específicos.

El incremento de la inflación se debe en gran medida a la subida desorbitada de los precios de la energía, especialmente de la eléctrica, y del efecto dominó que genera sobre la mayoría de productos y servicios. Resulta curioso que el gobierno estatal aduzca que no tiene margen de maniobra, ya que, según dice, debe respetar la directiva europea que regula el mercado eléctrico y, por ello, debe pagarse toda la electricidad al precio de la producida en las centrales de ciclo combinado de gas, que es la más costosa.

El Gobierno de Navarra, en lugar de luchar por la mejora salarial y de las condiciones de trabajo del personal público, por ejemplo, cumpliendo el Pacto de la Educación Pública, se dedica a colaborar con las empresas del oligopolio eléctrico y otros especuladores que pretenden instalar grandes polígonos eólicos y fotovoltaicos, que depredan el territorio y que causarán gravísimos impactos medioambientales y socioeconómicos en muchas zonas rurales. Gran parte de los fondos NextGeneration EU se destinarán a subvencionar estos proyectos, en lugar de financiar servicios públicos energéticos y verdaderas comunidades energéticas. El sobreendeudamiento causado por estos fondos lo volveremos a pagar en forma de recortes, también en nuestro sueldo.

La crisis climática y el agotamiento de los combustibles fósiles nos conducen inevitablemente al decrecimiento; por ello, se debe replantear totalmente el modelo energético y productivo, para alcanzar un modelo más justo desde los puntos de vista social y medioambiental. El decrecimiento no consiste en empobrecer a la clase trabajadora para que una élite sea cada vez más rica, sino en garantizar derechos básicos a toda la población, disminuyendo el consumo global energético y de materias primas. La élite rica debe desaparecer para que toda la población del planeta pueda vivir con dignidad y la humanidad tenga un futuro en este planeta amenazado. ■



Langileen erosteko ahalmenaren galerak ezin du finantzatu gutxi batzuen neurrigabeko diru gosea. Ezkerreko gobernu batek lapurtutakoa langile publikoei itzuli beharko lieke, sistema energetikoa publiko eginez eta eraldatuz, eta, aldi berean, elikadura subiranotasuna eta kaltetutako ekosistemen berreskurapena bermatu beharko lituzke.



Maiatzaren 27 eta 28an **STEILAS**ek bere XII. Kongresua egingo du Iruñean, hortaz, duela 16 urte Burlatan egindakoaren ondoren Nafarroara bueltatuko da sindikatuaren hausnarketa eta erabakigune nagusia. Orain arte bezala, lau urtez behin **STEILAS**kideok gure hausnarketak komunean jarri eta hurrengo lau urtetarako gure lan ildoak definituko ditugu. Aurten gure kongresuko leloa “Noranzko bakarra, publikoa” izanen da.

Kongresuan ia 6000 **STEILAS**kideren izenean 150 ordezkari inguruk parte hartuko dugu. Eztabaidagai izango den ponentzia bakarrak bi atal izango ditu: *gure hezkuntza eredu* (inklusiboa, feminista, euskalduna, berdea, kalitatezkoa eta publikoa) eta *ildo sindikala*.

Aurretik, sindikatuko afiliatu guztiek Herrialde Batzar, Kontseilu eta lan taldeetan eztabaiatu eta zuzenketak aurkezteko aukera izanen dute.

Jada lan hauetan hasi gara, eta aurten izan ditugun Kontseilu Nazionalan (azaroaren 13an Gasteizen eta urtarrilaren 29an Bilbon) Kongresuko arautegia, egutegia, leloa eta irudiak onartu eta behin-behineko ponentzia aurkezteaz gain, 0-3 zikloaren birdefinizioarako hausnarketan aritu ginen.

Bertan EAEko eta Nafarroako gaur egungo errealitatearen deskribapena egin zen eta bi lurraldeetan haur eskolen antolamenduaren inguruko desberdintasunak ezagutzeko aukera izan genuen, baita langileen lan baldintzen ere. Honekin batera zikloaren oinarri teorikoak ere aztertu ziren eta kontseilukideen iritzia jaso ziren Haur Hezkuntzaren inguruan. **STEILAS** sindikatuak haur hezkuntzako lehenengo zikloaren ezaugarriak berretsi zituen: doakoa, inklusiboa, integrala, laikoa, euskalduna eta Hezkuntza Departamentuak zuzenean kudeatua.

Hurrengo kontseilua martxoaren 26an burutuko da Gasteizen. Bertan, kongresuko Ponentziari aurkeztutako emendakinak landuko dira. Aurten urte garrantzitsua da **STEILAS** sindikatuarentzat, hurrengo lau urteko lan ildoak jarriko direlako.

Pandemiaren testuinguruan politika neoliberalen eta ideologia heteropatriarkalaren kritika da gure abiapuntua baina arlo ezberdinetan (hezkuntza – inklusiboa, feminista, euskalduna, berdea, kalitatezkoa, publikoa-, ekonomia, ekosozialismoa, harremanak...) beste eredu baterako proposamenak aurkeztuko ditugu.

Halaber, sindikatuko organoak, Kontseilu Nazionala, Idazkaritza Nazionala eta Nazio Batzorde Iraunkorra ere berrituko dira eta hainbat kideren erreleboa gauzatuko da XII. Kongresuan.

Euskal gehiengo sindikalarekin, eta beste lurraldeetatik etorritakoekin ere, gure ibilbidearen errepassoa eta gerorako proposamenak partekatuko ditugu, borrokan elkarrekin jarraitzeko asmoz. Ekitaldi nagusian Euskal Herriko alderdi politikoak, sindikatuak, hezkuntza eragileak eta bestelako jendarte eragileak ere gurekin izango ditugu. ■



HEZKUNTZA SISTEMA SENDOAREN ALDE

Duela 20 bat urte agertu zen Nico Hirtten liburuak, *Los nuevos amos de la escuela* (2003), argi utzi zuen ekonomia erakundeen interesa Irakaskuntzan, Hezkuntza merkatuaren beharretara egokitu behar dela axiomapean. Hortik aurrera, hezkuntza-sistema eraisteak/eraikuntzak harri guztiak mugitzen ditu:

- 1** Eskola giza kapitalaren hornitzailea izan behar da enpresentzat. Hezkuntzaren eginkizun soziala ekonomia mantentzeko beharrezkoak diren langileak sortzea izanen da. Horrela, jakintzaren demokratizazioak eta unibertsalizazioak kontsumoaren demokratizazioari bide ematen dio. Bidean, familietan zabaltzen da Hezkuntza seme-alaben etorkizunerako inbertsio bat delako ideia, horren menpe egongo baita lan-merkatuan sartzea.
- 2** Mundu ekonomikoak irakaskuntzaren munduari esaten dio "ezagutza instrumentalak" beharrezkoak direla, eta ez ikasketa teorikoak, hauek guztiak klik batez aurrean eduki ditzakegun garaian. Honek ikaskuntza teorikoaren pobretzea dakar eta jakintza mailarena. Horren lekua gaitasunek hartzen dute. Bide batez, enplegarritasunaren kontzeptuak kualifikazioaren kontzeptua ordezkatzen du (arabideei eta gizarte-babesari dagozkien ondorioekin).
- 3** Ikastetxeen autonomia kontzeptuaren hedapena ekonomiara ailegatzen da: autonomia honen izenean ikastetxe publikoetako inbertsioa murriztuz joan da. Aldi berean, enpresa handiek hezkuntzaren munduan negozio anitz ikusi dituzte (materialen salmentan, kontsumitzaileak sortzean, nahiko formaziorik ez duten langileen prestakuntzan, besteak beste) eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia berri eta metodologia berrien izenean, eskolan sartzen dira modu ezberdinez: haien produktuak oparitzen, edo prezio ezin hobean saltzen, edota enpresa haiek sortutako fundazioen bitartez, politikoki oso neutroak diren hezkuntzaz eraldatzeko diskurtsoak zabaltzen.
- 4** Ikastetxeen ezberdintasunaren harira, familien ikastetxea aukeratzeko askatasuna eskubidearen falazia eraiki digute; izan ere, berdintasunik gabe ez baitago askatasunik eta ez familiak ez ikastetxeak ez daude aukera berdintasunean. Eskola desberdinen bitartez, norbanakoen pribilegioak egonkortuz sistema segregatzaile iraunkorra dugu. Hezkuntzaren funtzio konpentsatzailearen ordez, jatorrizko desberdintasunen bultzagileak dira ikastetxeak.

Horrela baditugu Hezkuntza sistema idealaren oinarritzko lau zutabe (unibertsaltasuna, jakintza teorikoa, erregularizazioa eta funtzio konpentsatzailea) eraitsita, beste lau zutabe BERRIK ordezkatuta: kontsumoaren demokratizazioa, ikasleen enplegarritasuna, ikastetxeen autonomia eta familien ikastetxea aukeratzeko askatasuna. Horrela badugu gaitasun instrumental nahiko izanda denetara malgutu ahal den jendea eta gizarte honek behar duen eskola, kapitalen eta kontsumoan oinarrituta eta eragile.

Hezkuntza sistema berdintzailearen alde baldin bagara, jakintza elikatzen duten ikasketa teorikoak ezin ditugu alde batera utzi, jatorriz ematen ez den aukera – berdintasuna konpentsatzeko bidean jarri ahal izateko behar handiena duten ikasleak. Horrela izanen ditugu konprometitutako herritar kritikoak berdintasunean oinarritutako gizarteak behar dituenak.

Hau da **STEILAS**ek defendatzen duen gizartea eta eskola: heziketa integralerako aukera berdintasuna ematen duena, **ESKOLA PUBLIKOA**. ■

Nos encontramos en un escenario con los cuatro pilares básicos del sistema educativo ideal derribados (universalidad, conocimiento teórico, regularización y función compensatoria), y sustituidos por otros cuatro pilares nuevos: democratización del consumo, empleabilidad del alumnado, autonomía de los centros escolares y libertad de elección del centro de las familias. Tenemos así a personas que, con capacidad instrumental suficiente, se pueden adaptar a todo, y a la escuela que necesita esta sociedad, basada en el capital y el consumo.



Finanzas éticas en las escuelas

El sistema capitalista es mucho más que una estructura económica. Su principal objetivo es mantener y ejercer su superioridad jurídica, económica y política y es capaz de crear formas de pensar y reglas de juego para ello, que, además, llegan a ser asumidas y aceptadas por la sociedad.

En los últimos años, cada vez más compañías privadas han puesto en marcha proyectos para trabajar la educación financiera en las aulas, la mayoría como Unidad Didáctica, difundiendo su propia perspectiva de las finanzas, donde la sostenibilidad social y medioambiental no tienen ninguna consideración.

Diferentes personas, asociaciones y movimientos sociales que se cansaron de que el sector financiero se ocupase solo de la sostenibilidad económica de las inversiones, sin tener en cuenta las consecuencias ambientales y sociales de las actividades económicas, hicieron surgir el movimiento de las finanzas éticas. Varios factores diferencian a las finanzas éticas dentro del sistema financiero actual:

- No operan con paraísos fiscales, no llevan a cabo operaciones especulativas y financian únicamente proyectos de la economía real, especialmente proyectos con repercusiones positivas desde el punto de vista social y ambiental.
- Se especializan en sectores con impacto positivo: energías renovables, cooperación, comercio justo, agricultura ecológica, economía social e inclusión, etc.
- Operan con la máxima transparencia, especialmente utilizando sus canales de comunicación (online y offline) para hacer pública la lista completa de financiaciones y créditos concedidos a asociaciones, cooperativas y empresas.
- Tienen como objetivo el uso del dinero como medio y no como fin, teniendo como referencia a las personas, dentro del marco de la Economía Social y Solidaria.
- Las finanzas éticas son sensibles a las consecuencias no económicas de las acciones económicas.
- El crédito, en todas sus formas, ha de ser un derecho, y se promueve que tengan acceso al crédito personas que tradicionalmente están excluidas del sistema financiero, sobre todo mujeres.
- Se favorece la participación en las alternativas económicas, no solo por parte de las personas socias, sino también las ahorradoras.

Por todo esto, **STEILAS** y Finantzaz Haratago hemos creado la Unidad Didáctica "Educación financiera crítica y ética para transformar la sociedad" dirigida a alumnado que cursa desde 5º-6º de Primaria hasta 2º de Bachillerato, con actividades encaminadas a investigar las cuestiones financieras desde una perspectiva crítica y transformadora, para así valorar la importancia de apoyar una economía que esté al servicio de las personas y el planeta, y que su fin no sea el beneficio de unas pocas personas. En definitiva, este trabajo fomentará el pensamiento crítico. ■

Sistema kapitalistak ezartzen duen gailentasun juridikoa, ekonomikoa eta politikoa mahai gainean jartzeko eta kritikatzeko asmoarekin, **STEILAS**ek eta Finantzaz Haratagok "**Hezkuntza finantzario kritiko eta etikoa gizartea eraldatzeko**" Unitate Didaktikoa sortu dugu. Unitate honen xedea, eskoletan gai finantzarioak ikuspegi kritiko eta eraldatzaile batetik lantzea da, pertsonen eta planetaren zerbitzura dagoen ekonomiari garrantzia emanez.





Luze doaz hezkuntzan pairatzen ari garen osasun-larrialdiaren kudeaketa txarraren ondorioak. Osasun eta Hezkuntzako zerbitzu publikoetan gertatzen ari den egoera ez da kasualitatea. Bata bestearekin erlazionatzea saihetsezina zaigu, jakin badakigulako desinbertsio eta kudeaketa kaskarraren ondorioak direla.

Hartutako erabakiek egunerokoan isla zuzena izan dute ikastetxe, institutu, haur-eskola eta askotariko hezkuntza-zentroetan. Behar baino langile gutxiagorekin egin behar izan dugu aurrera, bajak ordezkatu gabe, kasu batzuetan, eta eginkizun pedagogikoekin zerikusirik ez duen lan-karga itzela ekarri duten protokoloak eta haien aldaketa etengabeak aurrera atera ditugu. Inprobisazioa izan da nagusi, eta horrek hainbat momentutan egunerokoa zaildu du hezkuntza zentroetan.

Azken bi ikasturteak gogorak izan dira benetan, hezkuntza-zentroak, orokorrean, toki seguruak direla esan du medioetan Hezkuntza Sailak. Hori bai, garbi esan dezakegu sailari esker baino gehiago langileen konpromisoari esker izan dela. Lan-karga izugarria izan da eta da, eta langileen hornidura egokia ezinbestekotzat jotzen dugu eskatzen denari aurre egin ahal izateko. Langileen plantilla handitzen ez bada, nola nahi dute salbuespe- nezko egoera honi aurre egitea?

Hartutako erabakiek Osasun Sailaren eta Hezkuntza Sailaren konpromiso falta erakusten dute. Inbertsioa ezinbestekoa da zerbitzu publikoak indartzeko, horiexek egon behar dute erdigunean dinamika pribatizatzaileetan ez erortzeko.

Ez dugu esker hitzik jaso nahi, **STEILAS**en argi dugu benetako aitortza langileen lan-baldintzen bidez egiten dela. Horretarako, hezkuntzan eta osasungintzan norabide horretan eramango gaituzten erabakiak behar ditugu. ■

Estrés laboral, la pandemia que no sale en los medios II

En el artículo anterior poníamos sobre la mesa que al menos el 20% del profesorado ha sufrido en los últimos años el **síndrome** de desgaste previo a un episodio de estrés sin que los gobiernos hayan tomado ninguna medida para disminuir la carga de trabajo que sufrimos este colectivo sociolaboral. Una de las consecuencias es la cada vez menor disposición a mantenerse en la enseñanza de una parte muy importante del profesorado, en un momento en el que la población docente ha experimentado un envejecimiento muy pronunciado.

El estrés del profesorado es un problema de tipo social y no un aspecto individual de cada docente. Experimentamos distrés (estrés dañino porque es acumulable, acelera el proceso de envejecimiento y puede producir enfermedades) cuando hay un desequilibrio entre los sentimientos de capacidad y las demandas

de nuestro entorno (estresores psicosociales). Desde la perspectiva sistémica, es consecuencia de la interacción entre múltiples agentes del sistema educativo, por lo que las respuestas de intervención deben incluir al mayor número de agentes posibles.

Antes incluso de la pandemia, en el informe TALIS de 2018, las tres principales **áreas** priorizadas por el profesorado para la mejora del clima escolar fueron la reducción de las ratios (85% de los docentes), ofrecer formación continua reduciendo el tiempo de docencia (65% de los docentes) y apoyos para el alumnado con necesidades educativas (63% de docentes).

Sin embargo, el Departamento de Educación ha hecho caso omiso a este análisis generalizado de los y las docentes, y se ha afanado en mantener unas ratios estancadas desde 2012, incrementar el esté-

ril trabajo burocrático, duplicar la formación por encima del horario laboral y dotar de recursos para ANEAE en función de unos presupuestos preestablecidos y no de las necesidades reales. Unido a ello, se mantienen otra serie de factores potencialmente estresantes como son el retraso de las sustituciones, la no consolidación de las plantillas, la obligación de presentarse a examen para mantenerse en listas, y el uso de la manida "autonomía de centro" para descargar sobre el profesorado todas las responsabilidades que debería asumir la Administración.

Por ello, es fundamental poner el foco en esta realidad para que sea reconocida como enfermedad laboral, descargar de estresores añadidos al profesorado, y conocer y aplicar técnicas para sobrellevar los momentos conflictivos de la mejor manera posible. Sirvan de ejemplo algunas de ellas:

Estrategias preventivas

- 1. Información sobre el estrés para poder reconocerlo en la propia persona o en los demás.**
- 2. Adaptación del estilo de vida:** Descansar lo suficiente y dormir las horas recomendadas / Hacer ejercicio regularmente e ingerir comidas saludables ricas en vitaminas y minerales / Tomarnos un tiempo para intereses personales / Crear un clima positivo en los entornos cercanos: reducción del ruido, uso de música tranquila, orden, limpieza, entorno bonito y agradable, y uso de aromas (jazmín, limón, lavanda o manzanilla) / No confiar en el alcohol, las drogas o los comportamientos compulsivos para reducir el estrés.
- 3. Reducción de los niveles de exigencia:** Aprender a administrar el tiempo de manera más efectiva / Establecer límites de manera apropiada / Decir no a las solicitudes potencialmente estresantes.
- 4. Desarrollo de recursos de afrontamiento:** **Fisiológicos:** autoconocimiento, respiración, relajación y meditación / **Psicológicos:** confianza, sensación de control, autotestima, actitud positiva, aceptación de todas las emociones por las que pasamos, uso de estrategias para no mantenernos en sentimientos de tristeza, pena o ira sostenidas en el tiempo / **Cognitivos:** creencias funcionales y realistas, competencias académico-profesionales / **Sociales:** buscar apoyo social para conversar sobre el problema, habilidades sociales y resolución de problemas desde la asertividad.

Estrategias combativas

- 1. Vigilancia de estímulos estresantes y de los síntomas asociados.**
- 2. Reorganización del tiempo libre y del período de trabajo.**
- 3. Modificación de los estímulos estresantes:** Desconexión periódica con el trabajo / Solución de problemas / Asertividad / Desensibilización: presentar situaciones que causan ansiedad de forma imaginada o en vivo, comenzando por la situación que causa ansiedad cero y subiendo gradualmente el tiempo e intensidad de exposición.
- 4. Tolerancia a los estímulos estresantes:** Aceptar que hay eventos que no podemos controlar / Reestructuración cognitiva: moldear nuestros pensamientos y hábitos buscando explicaciones alternativas sobre lo que ocurre / Centrarse en la sensación.
- 5. Reducción de la activación:** Respiración / Relajación, meditación / Autoevaluación.
- 6. Búsqueda de tratamiento en psicoterapia con un o una profesional capacitada en manejo del estrés.**

Irakasleen estresa arazo soziala da, eta ez irakasle bakoitzaren alderdi indibiduala.

Garrantzitsua da gatazka-uneak ahalik eta ondoen jasaten lagun diezaguketen tekniketako batzuk ezagutzea eta aplikatzea.





POBREZIAK EMAKUME AURPEGIA DU

Kontzeptuaren jatorria 1970eko hamarkadakoa da, Diana Pearce ikertzaileak, *The feminization of poverty: Women, work, and welfare* (Pobreziaren feminizazioa: emakumeak, lana eta ongizatea) lan sozial arrakastatsuan aipatu zuenean.

Errealitate hori gaur egun arte zabaldu da mundu osoan. Munduan muturreko pobrezian bizi diren pertsonen %70 emakumeak dira. Pobreziaren feminizazioa egonkortu den errealitatea da.

«Mundu garatua» deitutako honetan, gure errealitate guztia zeharkatzen duen begirada arrazializatuak sinestaratzen digu beste lurralde batzuetako eta beste jende batzuen gaitza dela, eta gu, hezkuntzara eta lan-mundura iristeko aukera izan dugun emakumeok, ez gaudela hain gaizki, bakarrik desberdintasun-zertzelada batzuk (soldata-arrakala eta kristalezko sabaia, adibidez) ezabatuz joan behar dugula eta kito.

Pobreziaren feminizazioa aztertuz gero, ordea, kapitalismoak eta patriarkatuak egituratutako desberdintasuneko mundu baten gizarte-mekanismoak ikus daitezke.

Kapitalismoa lurretik eta gorputzetatik urrundu da. Sistemak berak ordaindu gabeko lanak mantentzen ditu, produktibitate- eta errentagarritasun-eza argudiatuz. Ordaindu gabeko lan horietako hiru langiletatik bi baino gehiago emakumeak izaten dira.

Gainera, azken bi urteetako pandemiak handitu egin du zaintzen beharra, haurrak eta zaharrak kalte dituztelako gehien hartutako

neurriek (konfinamenduak) eta osasun arazoek. Horrela, bada, herrialde garatu honetan, soldatapeko emakumeen kopurua murriztu egin da.

Pobreziaren feminizazioak mahai-gaineratzen du gizarte-tentsio bat: bizitzaren eta kapitalaren artekoa. Tentsio hori kapitalismoak eta patriarkatuak sortu dute, bizitzaren kontra ekinez, eta emakume eta gizonen arteko berdintasunaren kontrako sistema mantenduz. Eredu hori merkatuen aldeko neurri-gabeko kontsumoan eta jendearen arteko eskubide desberdintasunetan oinarrituta, bidearen bukaeran dago, diskurtso feminista eta ekologikoak erakusten duten bezala.

Horregatik, ezinbestekoak dira politika feministak eta ekologikoak, bizitzak (eta ez kapitala) erdigunean jartzeko. Horrek eskatzen du gizarteak bere barruan bizi den jende guztia bere gain hartu behar duela, berdintasun eskubideetan oinarritutako gizarte izateko. Hau da, bizitzarekin lotutako zeregin guztiak ordaindutako lanbideak izan beharko lirateke, eta jende guztiarengana iristeko zerbitzu publikoek bere gain hartu beharko lituzkete.

Errealitatea, aldiz, iraunkorra eta burugogorra da: konfinamenduan izendatutako «funtsezko lanbideek» erakutsi ziguten sektore horietako langile asko emakumeak direla, eta horietatik asko ere, arrazializatuak. Jakin ere badakigu soldata baxuenetakoak eta lan-baldintza prekarizatuenetakoak direla lanbide horiek.

Era berean, argi geratu da zerbitzu publikoen erantzukizuna osasun krisialdi honetan, baina, bi urte beranduago, gobernuek gizartearen zutabeak diren osasungintzan eta hezkuntzan ez dute inongo ahaleginik egin zerbitzu horiek indartzeko, ezta zaintzako eremuan ere, nahiz eta beharrak asko handitu.

Errealitate honen inguruko kontzientzia pizteko, **STEILASek** *Pobreziak emakume aurpegia du* izenburuko unitate didaktikoa sortu du martxoaren 8aren kariaz, pobreziaren feminizazioak erakusten digulako aldarrikapen feministei eusten jarraitu behar diegula, **STEILASek** beti egin duen bezala, gaurkotasun osoz. ■


Si analizamos la feminización de la pobreza, se pueden ver los mecanismos sociales de desigualdad estructurados por el capitalismo y el patriarcado.

El capitalismo mantiene trabajos no pagados argumentando falta de producción y rendimiento. Más de 2/3 de las personas que realizan estos trabajos son mujeres.

LGTBIQ+:

lesbiana, gay, bi, trans, queer eta gehiago... eta I?

INTERSEX



Behar bada intersex-armairua LGTBQ+ hizkien artean dagoen armairurik pisutsuena da. Izan ere, hau irakurtzen ari zaren horrek, ezagutzen al duzu izatera intersexuala duen pertsonarik? **Kalkulatzen da gizartearen % 1,8a dela intersexuala, ilegorriak bezainbeste;** datu horren arabera, Euskal Herrian, 57.000 biztanle.

Pertsonengan sexu-genero kategoria bitan banatuta dago, arra eta emea, emakumea eta gizona. Jaiotzen garen momentuan, sexuaren arabera bereizten gaituzte, begi-bistan dauden karaktere sexualen arabera: zakila, arra; bulba, emea. Horren arabera, neska- edo mutiko-kategoria esleitzen zaigu, eta horren arabera gara heziak eta gizarteratuak. Kanpo genitalez gain, izaera kromosomikoak (XX eta XY) eta hormonek gure gorputzean duten presentziak ere informazioa ematen digu gure sexuaren inguruan.

Dogmatzat hartu da XX, estrogenoak eta progesterona, obarioak eta alua sorta bereko elementuak direla, eme edo emakume definitzen gaituztenak, eta XY, androgenoak, barrabilak eta zakila ar edo gizon. Gorputz guztiak, baina, ez dira halakoak, badira XY diren eta androgenoak onartzen ez dituzten gorputzak, eta, beraz, barrabilak jaitsi gabe gelditu eta genitalaren kanpo-forma bulba batena dutena, adibidez. Beste gorputz batzuek XX kodifikazioa dute, haurdunaldian zehar androgeno jarioa handia izan da eta genitalek zakil forma garatzen dute, nahiz eta gonadak obarioak izan.

Horrelako kasuak, baldin eta jaiotzean antzeman badira, patologia moduan tratatzen dituzte, eta, sarritan, interbentzioak egiten. *GrApSIA* edo *Kaleidos* kolektiboko partaideek kontakizun gordinak eskaini

dizkigute intersex-izaerak paradigma medikuan ekarri dizkien zapalkuntza-egoeren inguruan. Gorputz horiek medikalizatu egiten dira jaiotzen direnetik, eta horrek estigmatizazioa, ikusezin bihurtzea, ekartzen du. **Haien gorputza konpondu beharreko zerbait dela sinetsarazten dute,** eta horrela, baimen informaturik gabeko ebakuntzak egin ohi dira, baita beste tratamendu batzuk ere, oso txikitik eta atzera bueltarik gabekoak. Horri erantsi diezazkiokegu bizi osorako medikazioa eta nerabezaroan alua dilatatzeke interbentzioak egiten zaizkiela, ez dutenak oinarria pertsonaren osasunean baizik eta kosmetikan, eta sistema zishetero patriarkala betikotzeko saiakerak direnak.

Intersex-errealitateari ematen zaion tratatu patologiko horrek pertsonon bizitza erabat zeharkatzen du, eta ondorio fisikoak eta psikologikoak horrekin batera etortzen dira.

Hori dena sarri sekretupean, kontsulta barruan, gelditzen da, beharbada soilik gurasoek dakite, eta ez informazio osoa. Finean, gorputz intersexualek maskulinitate edo feminitate konkretu bat bete dezaten, behar adina eraldatzen saiatzen dira; gure gizarteak ematen dizkigun bi tiradera horietako batean sartzeko, dena ordenatuta egon dadin. Patologizatu egiten dira horretarako justifikazioa edukitzeko. Horrek eman dio izena *Que no salga de aquí* konpainia artistikoari, intersex-errealitateak ikusarazteko lanean dabilen taldeari. **Gorputz intersexualak gorputz osasuntsuak dira, arazo da sistema bitarrean ez direla kabitzen.** Haien antzerki obra nagusian zera diote: "Intersex-gorputzak sistema bitarra arrakalatzera datorren birusa dira". **Gorputzen eta esperientzien aniztasunari balioa ematea da intersex-errealitateak eskaintzen digun liberazio aldarria,** gorputz bakoitza bakarra eta errepikaezina baita, eta aniztasun sexualak aberastu egiten gaitu.

Eskoletan, haur intersexualekin topatu garetan, ez da batere erraza izan. Familiak beldurrez josita iritsi ohi dira, lotsatuta, eta normalean duten helburua haurra besteak bezalakoa izatea da. Erreferenteak behar dira, haiek bezalako pertsonak, historiak ezagutu, ipuinetan, auzoan, pelikuletan... Eta ez badaude, asmatu egingen ditugu. Jendarte binarista honek arazo larriak ekartzen dizkie intersex pertsonari, eta ez gaituzten engaina, pertsona orori. Oso zaila da kaxa bat edo bestean kabitzea, izan ere, gure gorputzak eta gure esperientziak anitzak dira. Aniztasun sexuala aberastasun izugarria da, beraz, goazen erreferentez hornitzera gu geu eta gure eskoletako haurren esperientziak ahalik eta aberatsen izan daitezten. ■



Asanblada Nazionala

Eilastasuna Asanblada Nazionala **Basoa** deritzon Emakume Defendatzaileen Etxean egin genuen. 2018ko asanbladan, Eilastasunaren ibilbidean urrats berria egin genuen, lehenbizikoz Hego Euskal Herrian bertan proiektu bat martxan jarriz. Basoa proiektuko haur- eta gazte-literatura liburutegiaren eta ludotekaren sorkuntzan Eilastasuna bidelagun bilakatu da.

Horregatik guztiagatik, proiektu bat fisikoki kokatuta dagoen tokian bertan asanblada egitea oso ekimen polita suertatu zen.

Urtero bezala, munduan zehar abian ditugun 8 proiektuen balorazioa egin genuen. Bertaratutako eilastasunkideek eta lagunek argi azaldu zuten paperez, ikus-entzunezkoekin eta ahoz, zer nolako garrantzia eta onurak dakartzaten txirotutako herrialdeetan elkartasun-hezkuntzako proiektuek ikaskuntza-irakaskuntzako komunitateetan. Genero-ikuspegian ere urratsak egiten jarraitzen da, eta gero eta neska gehiago eskolaratzea lortzen da.

2020an lehenbizikoz EHU (Araba) proiektu bat martxan jarri genuen, Kolonbiako Bucaramanga hiriko unibertsitateko ikasleekin. Esperientzia bikaina izan da, EHUko ikasle-taldeak klasean landu dutelako eta Kolonbiakoekin bilerak on-line egin baitituzte. ■



La Asamblea Nacional de **Eilastasuna** se celebró en **Basoa**, Casa de las Mujeres Defensoras. En la asamblea del 2018 dimos un nuevo paso en la andadura de Eilastasuna, poniendo en marcha por primera vez un proyecto en Hego Euskal Herria. En el proyecto Basoa, acompañamos en la creación de la biblioteca de literatura infantil y juvenil y la ludoteca.

Por todo ello, la celebración de la asamblea en el lugar donde está ubicado el proyecto resultó ser una iniciativa muy bonita.

Se valoraron los 8 proyectos y una vez más pudimos ver la importancia de éstos en las comunidades educativas de países empobrecidos.

En el año 2020 se puso en marcha en la UPV (Álava) un proyecto con estudiantes universitarios de la ciudad colombiana de Bucaramanga. La experiencia ha sido excelente, ya que los grupos de estudiantes de la UPV han trabajado en clase y han mantenido reuniones on-line con los de Colombia. ■



Grupo macrogranjas



La empresa Valle de Odieta tiene una explotación industrial de vacuno de leche en Caparroso. Dicha empresa ha recibido continuas denuncias desde 2014 (Policía Foral, Guarderío, Seprona, Ganadería, Calidad Ambiental, Economía Circular y Agua). Todas ellas las ha recurrido y no ha pagado ninguna. Las Administraciones Local y Foral están al corriente de todos los incumplimientos y afecciones pro-

vocadas por la empresa, pero su actitud no ha sido lo bastante contundente como para hacerle desistir. Ante esta desprotección, varios colectivos, entre ellos **STEILAS**, nos estamos juntando para realizar acciones con el fin de frenar la ampliación de esta explotación, así como nuevos proyectos, que están solicitados, y son un atentado contaminante para suelos y aguas y por tanto para la población. Ante dichas acciones (presentar un informe en el Parlamento, al Defensor del pueblo, artículos en prensa, concentraciones...) la empresa Valle de Odieta, no suficientemente satisfecha con sus impagos, ha pasado a la acción judicial contra las personas que están llevando a cabo estas acciones. Todo un despropósito. ■

Zenbait kolektibo, besteak beste, **STEILAS**, elkartzen ari gara, Caparrosoko behi haziendaren zabalkuntza geldiarazteko, baita proiektu berriak ere zeinek lurzoruak eta ura kutsadura maila handituko duten eta, beraz, biztanleentzat ere oso arriskutsuak dira.

GOI TENTSIOKO LINEAK ETA ENERGIA KOLONIALISMOA

Castejongo zentral termikoak eraiki ziren Nafarroak behar ez zuen energia elektrikoa sortzeko eta gero esportatzeko, batez ere Euskal Autonomia Erkidegora (EAE). Legez kanpoko zentral horiek behar zuten goi tentsioko linea bat elektrizitatea eramateko Castejondik Iruñerrira eta bertatik Goierriera. Ordutik REE (Red Eléctrica de España) eta Nafarroako Gobernua ari dira goi tentsioko linea (GTL) berriak eraikitzen, esportazio hori handitzeko.

GTLeke eragin kaltegarria dute ingurumenean eta osasunean. Talde ekologisten, plataformen eta udalen mobilizazioari esker lortu da orain arte gehiago ez jartzea, baina azken bi urteotan, energia berriztagarrien makroproiektuen eskutik, Nafarroa Garaian elektrizitate gehiago sortuko da eta proiektu berriak eta presioak areagotzen ari dira. Erriberatik Goierriaraino datorren GTL indartu eta bikoiztu nahi du REE, eta Forestalia enpresak Aragoiko poligono eolikoan eta fotovoltaikoan elektrizitatea eraman nahi du EAERA, Nafarroan barrena linea berriak eraikiz.

Forestalia sortu dutenek dirutza egin dute zerrien makroetxaldeekin eta azken urteotan sartu dira energia berriztagarrien negozioan. Bide batez, enpresa honen atzean funts putreak ere badaude. Nafarroak dituen elektrizitate beharretarako ez da goi tentsioko linea gehiagorik behar, tokian tokiko eskala txikiko energia berriztagarrien instalazioak bultzatzen badira. Baina Nafarroako Gobernuaren apustua izan da oligopolio elektrikoa, funts putreak eta espekulatuzaileak babestea, besteak beste, Ingurumenari buruzko Lege berriaren izapidetzea atzeratuz eta enpresa horien neurria eginez. Energia kolonialismoari aurre egiteko, goi tentsioko linearik ez! ■



STELAS analkaria
@STELAS

Otsailaren 3an eta 10ean, PAI-Free Plataformaik inuñean beste eragile batzuekin batera antolatuz ditugun Jardunaldiak berri eman nahi dizuegu, Ingelesez ikasteko Programak (PAI) suposatzen duen inuzurra agerian utzeko eta bertatik irateko bideak aztertzeko.

STELAS analkaria
@STELAS

Osasungitza publikoa defenda dezagun!
Defendamos la sanidad pública!

#PUBLIKOA
#ProbatoriorikEZ
#LahenArreta
#DesauriEtsaiaZaindu
#DefendatuCentroDeSalud



Jornadas / Jardunaldiak



Otsailak 2 de febrero • 17:30
Euzko San Francisco ospitalea
Inuñea

La chapuza del PAI
PÁRAM inuzurra
Videoforu / Bideoforu
"La chapuza del bilingüismo"
Madrid 2004-2020

Paco Serrano,
Director
Lek. Antropologoa (Ludologia)

Richard Weyding,
Fundador de plataforma de Ingu
Español.

Otsailak 10 de febrero • 17:30
Euzko San Francisco ospitalea
Inuñea

Del PAI también se sale
Ez etxi!
Emma Martínez,
Directora del centro sanitario
que ha trabajado con el PAI
Categoría: estudio de caso




noticiasdenavarra.com

La Plataforma O-2 de Navarra rechaza "agresión" al ciclo de Inuñea
En una conversación a la que asistieron cientos de personas, más unas escuelas infantiles "agresión"

STELAS analkaria
@STELAS

naliz.eus/ku/info/notici...

Aitorza
Erreparazioa
Ez erreparatzeko bermeak
#Torturatuak
Reconocimiento
Reparación
Garantías de no repetición

#Torturakertu



STELAS analkaria
@STELAS

Feminizidoriok ez. Patriarkatuaren non, erasoak han.
Beldurrari hortzak erakutsi.
naliz.eus/.../la-policia...
Babes osoa etxekoari, lagunei eta Castejongo Dos de Mayo ikastetxeko eskolara komunitateari.
#IndarkeriaMatriarkaRikEz



STELAS analkaria
@STELAS

Urte berria, inertzia bera!

Aurten pandemiak ez galu bat-batean harrapatu, baina berdin jarraitzen dugu. Aurrerak zitezkeen egoerari buruz eragileko baliabideak jendi beharrenean, ingurubizitza eta ezjakintasuna dugu ikasteko, institutu eta Haurreskolatan.

WIKI analkaria
@wikianalkaria

Euskara ez dute baloratuko eremu 'ez-euskalduneari', eta eremu mistoan batzuetan baino ez.

Alemania, Nafarroa guztian.

Hemendik astebetara Erantzitzako proba NUPen.
Erizain postuan ez da baloratuko, artikulua ere arabera.



wikianalkaria.com

Euskara ez dute baloratuko eremu 'ez-euskalduneari'. Nafarroa - euzkalduneari...
Euzkaldun eremu mistoan batzuetan baino ez dute baloratuko. Erizain postuan ez da baloratuko, artikulua ere arabera.

STELAS analkaria
@STELAS

#GerrarikEzBardeakBai
OTANen froga militarik Bardeetan ez egitea eskatu dugu inuñean
@2018Bardetas
KEM-MOC
#EjertzitokAputzu



NI CASADAS NI SEPULTADAS

LAS VIUDAS: UNA HISTORIA DE RESISTENCIA FEMENINA

Amaia Nausia Pimoulier
Txalaparta • 2022

“Gerta litekeen arriskua eta akatsa saihesteko, nire ustez komeniko litzaioke ezkontzea edo hiltzea, esaera zaharrak dioen bezala, alargun sendoa, ezkondua edo hilobiratu”, Juan de Espinosak XVI. mendean idatzia utzi zuen. Gizonezkoak nagusi ziren gizarte baten zat, alargunak izua eragiten zuten figura boteretsuak ziren. Gizon baten menpean egon gabe, sorginkeriaz eta beste delitu batzuetaz akusatu zituzten, edo, behatz inkisidoreak seinalaturik, beren bizitza, negozio eta ondasunez gabetu zituzten. Hala ere, Amaia Nausiak ikerketa honetan zorrotz kontatzen duen bezala, bakardadea eta marjinazioa jasan arren, alargun askok aurre egin zieten bizi baldintza gogorrei, aurrekaririk gabeko intsumisio ariketa batean. ■



Un secreto pelirrojo

Camino Baró y Núria Fortuny
Edicions Bellaterra • 2021

De las siglas LGTBIQ+, la I resulta la más invisible, la I de intersexualidad. Este cuento infantil que incluye guía para trabajarlo con la infancia lo aborda desde un punto de vista lúdico y muy empático, que puede ayudarnos a sacar las intersexualidades del armario y darle valor a la diversidad que tanto nos enriquece.

Andrea es la protagonista de esta historia: una niña de 8 años que no entiende el mundo que le rodea porque siente que no encaja en él. Va a tener que hacer un largo trayecto para encontrar su sitio y mostrarse tal y como es. ¿Te apetece acompañarla en su viaje? ■



www.steilas.eu



Araba

Eulogio Serdán 5 - 01012 **Gasteiz**
☎ 945 14 11 04
📠 945 14 43 02
araba@steilas.eu
UPV/EHU Arabako Campusa
Ikasgelategia, 204. Bulegoa
01006 **Gasteiz**
☎ 945 01 33 97
steilas-araba@ehu.es

Bizkaia

Jose Maria Eskuzka 1, 1 esk. - 48013 **Bilbo**
☎ 944 10 02 98
📠 944 10 13 60
bizkaia@steilas.eu
UPV/EHU Bizkaiko Campusa
Liburutegiko eraikina 1. solairua
48940 **Leioa (Bizkaia)**
☎ 946 01 24 34 ☎ 946 01 24 35
steilas-bizkaia@ehu.es

Gipuzkoa

Basotxiki 30-34 atz. - 20015 **Donostia**
☎ 943 46 60 00
📠 943 45 36 27
gipuzkoa@steilas.eu
UPV/EHU Gipuzkoako Campusa
Ignacio M^a Barriola eraikina
Elhuyar Plaza 1- 20018 **Donostia**
☎ 943 01 84 36 ☎ 943 01 82 81
📠 943 01 81 40
steilas-gipuzkoa@ehu.es

Nafarroa

Joaquin Beunza, 4-6 behea
31014 **Iruñea**
☎ 948 21 23 55
📠 948 22 97 90
nafarroa@steilas.eu